

ek!

...eta kitto!

**2021eko komertzio
eta zerbitzuen gida**



EIBAR 675 urte



Eibarren
AKEBAI

943 70 84 26
943 70 84 44 (luz. 4201)
eibarrenakebai@gmail.com
www.akebai.eus



 **arat**
Hortz Klinika

"Hortz osasuneko
profesional taldea
zure zerbitzura"

T. 943 20 18 51

info@clinicadentalarat.com


www.clinicadentalarat.com

Toribio Etxebarria 4-1, EIBAR



UniverSalud Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa

sumarioa



ZULOAGA jaio
zela 150 urte **52**

**5 EIBAR
675 urte**

2021eko GIDA
Eibarko enpresa,
zerbitzu, komertzio,
tabernak...

67




Euskara Elkartea

Argitaratzailea: ...eta kitto! Euskara Elkartea **Argitaratze-data:** 2020ko abendua
Publizitatea: Itziar Albizu, Belen Ullazia **Diseinua eta maketazioa:** Ana Aizpurua, JL Gorostegi
Argazkiak: Malen Illarramendi, Malen Jainaga, Silbia Hernandez **Azala:** Silbia Hernandez
Administrazioa: Marisol Uriarte **Inprintategia:** GERTU **Lege Gordailua:** SS-01351-2019

@etakitto @gaztekitto



675 urte




Auten 675 urte beteko dituen Eibar 1346an fundatu zuten

Oñatik, Markinak, Elorriok eta Bergarak baino jauregi gutxiago izanda ere, XX. mende hasieran bazituen zazpi. Baino euretako lau galdu ondoren, hiruk besterik ez dute zutik irauten, hirurak ere hezkuntzari emanak. XVIII. mendearen amaieran frantsesek gure herria erre bazuten, ondo zigortu zuten baita gerra zibilean ere. Azken horretan salbatu ziren hainbat eraikin historiko desagertu egin ziren 1950-60 tarte horretan Eibarren izandako hazkundean, eta hiri berria sortu zen "Regiones Devastadas"-eko beharginek gurean egindako lanari esker. "Eskola nazionalek" tokia egingo zieten beste mota bateko zentroei. XX. mendekoa da, batez ere, gure gaur egungo Eibar.

Untzueta

Untzueta jauregiaren gaur egungo itxura XVII. mendetik dator eta Azitaingo La Salle ikastetxearen parte dugu. Aurretik Oñaztarren eta Ganboatarren artean izandako banderizoen borroketan hartu zuen parte, aurrenekoen alde jokatuz. Orduko harten erre egin bazuten ere, 1193an berregin zuten.



Markeskua

Markeskua edo Isasitarren jauregia

XVI. mende amaierakoa da eta bertan izan dira askotan Espainiako erregeak, XX. mendearren hasierara arte bai behintzat: Francisco Fernando infantea bertan hil zen 1634an (Felipe IV.aren semea hor bizi izan zen denboraldi batean beste anai batekin) eta Isasitarrenetik pasatu ziren Isabel II (1865), Maria Cristina (1887), Alfontso XIII (1905) eta Victoria Eugenia (1927) errege-errenginak. Lantegi Eskolak errehabilitatu zuen 1998an eta 2001etik UEUren egoitza da. Aurretik ...eta kitto! Euskara Elkarteak ere bertan izan zuen egoitza.





INDIANOKUA ALBOTIK IKUSITA

Zumaran

Indianokua edo Zumaran jauregia 1772koa zen eta 1951ra arte egon ziren bertan bizitzen. 1955ean bota zuten guztiz Aldapatxoko etxeak egiteko. Gaur egun anbulatorioa dagoen zonaldea okupatzen zuen eta gainean Eleixalde jauregia zuen.



INDIANOKUA AURRETIK IKUSITA



Mallea

Mallea jauregia San Andres parrokiaren atzeko aldean zegoen, Barrenkale kalearen hasieran, eta gerra zibilean erre zen. Bertako armaria San Telmo museoan gordetzen dute gaur egun.



Kontadorekua

Kontadorekua edo Zuloagatarren jauregia

Errebalen zegoen kokatuta eta hori ere kaltetuta irten zen gerra zibiletik. Orain ospatu berri dugun Ignazio Zuloaga pintore ospetsuaren jaiotza bertan gertatu zen orain dela 150 urte. Arte arloan nabarmendu ziren Zuloagatarrok.





Aldatze

Aldatze edo Iñarratarren jauregia XVI. mendekoa da. 1914tik Probidentziako Monjek eskolak ematen dituzte bertan eta orain dela zappi urte mendeurrenena ospatu zuten.



Untzaga etxe- dorrea

Untzaga edo Orbeatarren etxe-dorrea XVI. mendekoa zen. Isasitarren eta Orbeatarren etxea zenak zutik iraun zuen 1899ra arte, plaza handitzeko botatzea erabaki zuten arte. Elgetako errepidearen hasieran zegoen.



Udaletxea

Udaletxearen eraikina 1901ean altxatu zuten. 2003an berritu zuten; bitartean, Udaleko zerbitzuak Portaleara eramanez.






Musika-kioskoa Beasainera

Bada musika-kiosko bat gurea izan zena eta gaur egun beste herri batean dagoena. Bere sasoian Alfonso XIII.aren plazan zegoenean La Marcial musika-bandak kontzertuak ematen zituen astero. **1929an Beasaini saldu zitzzion** eta ordurik han dago, udaletxearen aurrean. 1990ean berritu zuten eta orain urtebete, 2020ko urtarrilean, Eusko Jaurlaritzak monumentu izendatu zuen, bertako plazan ezin hobeto integratuta eta Santiago bidean kokatuta egoteagatik.



Merkatu Plaza

Azkenaldian hainbeste esames ekarri digun herriko Merkato Plazak hainbat eraikin izan ditu XX. mendetik hona. **1909ko** Sanjuanetan inauguratu zuten orduko Plazido Zuloagaren kalean zegoen eraikina. Gerra zibilaren ondoren, **1945ean** zabaldu zuten berria, “Regiones Devastadas”-ekoek egindako lanari esker. Sei hamarkada beteta, **2007an** itxi zituen ateak merkato hark eta 2008an Rialto zinearen lokalak izandakoetan zabaldu zuten gaur egungo behin-behineko merkatu-plaza.



1909AN INAUGURATUTAKOA



GAUR EGUNGO BEHIN-BEHINEKOA



1945ETIK 2007RA IRAUN ZUENA



Zezen-plaza

1903an inauguratu zuten Eibarko zezen-plaza. Ordura arteko zezenketak Untzagan egiten ziren, Orbeatarren etxe-dorrearen aurrean, Zuloagaren koadroek ondo erakusten duten moduan. Cocherito de Bilbaok zabaldu zuen sasoi berria bi planta eta 37 metroko diametroa zuen plazan, 5.265 ikuslerentzako aforoarekin. Eraikina kaltetuta irten zen gerra zibilean eta **1961ean berritu** zuten, oraingo horretan 3.300 ikuslerentzako tokiaarekin. Hamarkada bat da bertan zezenketarik egin ez dela, 2009an izan baitzen azkena.



Txaltxa-Zelai

Txaltxa-Zelaiko musika-kioskoak hartu zion lekua urte batzuk lehenago Beasaini saldutakoari. **1935ean** eraiki zen eta parke berria egiteko lanak hasi arte iraun zuen. Parke berri hori egiteak ere eztabaidak sortu zituen bere sasoian eta, azkenik, **1997-1999** tartean hartu zuen gaur egungo itxura. Epaitegia 2002an zabaldu zuten eta haren inguruko jolas-parkea 2013an eraiki zuten.



EPAITEGIA



JOLAS-PARKEA



Igerian

Kakalardokuan zegoen aire libreko igerilekua ere lehenaldiko gauza da dagoeneko. Hura ixtearen arrazoia, dena dela, ezin gerrari aurpegitatu: orduko isurketa toxikoek behartu zuten “instalazioa” ixtera 1937an. **Ipuruako kanpoko igerilekua**, bestalde, 1989an inauguratu zen. Eta bertako liburutegi-zerbitzua 2011tik eskaintzen da. 1.500 lagunentzako aforoa du eta, ekainetik irailera irauten duen denboraldian, 50.000 lagun jasotzen iritsi da gehienez: uztaleko marka 26.600ekoa da eta ekainekoa horren erdira heltzen da (13.400).



San Andres

San Andres herriko parroquia nagusiaren inguru osatu zen Eibar. Lehenengo erreferentiak 1267koak dira; gero, 1532an hainbat aldaketa egin zitzaizkion, eta 1662an hartu zuen gaur egungo itxura. XVII. mendeko data horretatik eusten dio 33 metroko altuera duen dorreari. 1980tik monumentu artistikoaren izendapena du.



Azitain

Azitaingo ermita 1556an hasiko da paperetan agertzen, eta parrokia izendatuko dute 1963an. Hainbat lan egin eta 1991n berrinauguratu zuten XVIII. mendekoizarrik gabeko Kristoa duen eraikina. Abuztuaren 15ean ospatzentute bertako eguna.



Karmelitak

Gure herritik orain dela bi-hiru hilabete joan diren karmeldarrak Txonta kalean zabaldu zuten euren lehenengoko lokala 1934an. Karmen kaleko eliza 1956koa da, gaur egungo kanpoko itxura 1990. hamarkadakoa bada ere.



San Agustin



Estaziño kaleko San Agustin parroquia 1973koa da, don Balbino Aierbe bertako parrokoa zela egindakoa, eta aldamenean duen Ariel Etxea sasoi batean Diputazioko Arbitrioen Etxea zena ere bereganatu zuen bertan bulegoak egiteko.



El Salvador

Amañako El Salvador parroquia 1969koa da eta auzo horretan eta Eibar guztian lan handia egin zuen On Pedro Zelaiaari zor zaio neurri handian. Bertan zine-emanaldiak eskaini ziren hainbat urtetan.

Ipuruako San Pio parroquia 1985ean amaitu zuten. Aurretik, 1966tik, mezak eta bestelako ospakizunak Caritasen pabilioi batean egiten ziren.

Urkiko parroquia 1969koa da eta Urki 17 eta 19 zenbakietako eraikinaren behealdea hartzen du.




San Pio



Urki

Arrate

Arrateko santutegiaren lehenengo erreferentzia idatziak 1498koak dira, baina hainbat datuk diote kultoa egiten zela XI. mendean. Amabirjinarekin topo egin zuen artzain neskatilarena 1442an kokatzen da. Arrateko Amabirjinaren irudia XIV. mendekoa da eta goian zintzilikatutako itsasontzia 1798koa. Santutegia 1987an berrinauguratu zuten. Gaur egun irailaren 8an ospatzen da bertako jaia, baina 1673ra arte abenduaren 8an ospatzen zen.



Hiru pausoak

Tradizioarekin lotutako hiru pausoak bidean dauden **santutxuek** adierazten dizkigute: Sumendixan dagoen lehenengoak (187 metro) Jose Antonio Azpilikuetaren irudiarekin; Lezetan dagoen bigarrenak (314 m) Esther Galarzak egindakoarekin; eta Zesterokuaneko hirugarrenak (449 m) Jule Egañak egindakoarekin. Arrateko gaina 530 metrotan izango dugu zain.





San Miguel




Aginagako San Miguelen
lehenengoko erreferentziak
1555ekoak dira eta parroquia
izendatu zuten 1755ean.
295 metroko altueran dagoen
eraikinean irailaren 29an
ospatzen dituzte jaiak.



Santa Kurutz ermita 1862an
apatzten da lehen aldiz.
529 metroko altueran
dagoen bertako jaiak
maiatzaren 3a pasatuta
lehenengo domekan
ospatzen dituzte.

Santa Kurutz




San Salvador



San Salvador ermita 1802an agertzen da lehen aldiz paperetan, eta Areta baserrikoak azaltzen dira bertako jabe. 435 metroko altueran dagoen parajean abuztuaren 6an ospatzen dira jaiak.

San Roman


San Roman de Zelaarte-ko ermita 1556an agertzen da lehenengoz paperetan. Aginaga auzoko 475 metroko altueran dagoen toki horretako jaiak Santa Agedaren osteko domekan ospatzen dira.



San Pedro




San Pedro Akondiakoaren inguruko datuak ere 1556koak dira. 610 metroko altueran dagoen ermita horretan sorben bedeinkapena egiten da Sanjuanen bueltan eta jai nagusia ekainaren 29an ospatzen dute.



SAN MARTIN

Gurutzea

Arrateko gurutzea 1652koa da eta badago aspaldiko ohitura, hiru buelta eman eta hiru kredu errezatzea eskatzen zuena. Bertara igotzeko hasieran hiru eskailera-maila bazeuden ere, gaur egun bost dira maila horiek. 1927ko irailaren 7an **Ignacio Pagoaga** bertaraino iritsi zen bere Peugeot-ean, orduan bidea Usartzara besterik iristen ez zenean. Haizete batek gogor astindu eta bota zuen gurutzea 1941ean. Gurutzaren azpian iturri itxi bat dago eta solstizioekin-eta badu lotura tokiak. **Geobiotek-**ek markatu zituen indar horiek 2012an.



Kolonia



Arrateko kolonia Eibarko neska-mutilen hainbat osasun-arazori aurre egiteko zabaldu zuten hasieran, 1910ean. Handik hiru hamarkadatara, 1945ean zabaldu zuten berriro, eta gaur egungo itxura hartu zuen 1955ean.

Tiro-pitxoiko bi pistak 1955ekoak dira. Gaur egun Tiro al Vuelo elkarreak antolatzen ditu bertako tiradak, eta Gipuzkoako nagusiak dira.



Asola-Berriko bolatokiak
Matsariako Mahasti baserrian izan zuen sorrera 1962. urtean. Handik urte batzuetara, 1968an, hartu zuen ostatu bere gaur egungo egoitzan, Sumendixa baserriaren ondoan, Azitaindik gora. Hiru-txirlo modalitateko hainbat txapelketatan hartzen dute parte bertako bazkideek.



Asola Berri



Ipuruako bolera

Ipuruako bolera
1972koa da eta bolo-palma modalitateko jokoa egiten da bertan. 1958an sortutako Centro Regional Montañés-ek izan du haren ardura, 1996tik aurrera Casa Cantabria - Kantabria Etxea deitutakoak. Bizi izan zituen sasoi hobeak, adibidez, Liga Nazionalean parte hartu zutenean.



Arrateko frontoia

Arrateko frontoia motza eta berezia da aldi berean, batez ere hainbat zutabe dituelako zabalean eta estua delako oso. Gaur egungoa 1945eko da, gerra aurretik bazegoen ere.



Altzubarren



Altzubarren frontoia izen bereko baserriaren ondoan dago, Azitaingo poligonoan, eta 2004koa da.

Sansaburuko frontoia izen bereko ikastetxearen eta Urkiko hileraaren artean dago. 1975ekoa da.



Sansaburu



Astelena

Astelena frontoia 1904an eraikitako “pilotaren Katedrala” da. Hasieran teilaturik gabe egin zuten. Geroago, 1931n, erre egin zen. Gerra ostean ireki ondoren, hainbat urte eman zituen egitarau bikainak eskaintzen. 1969an itxi egin zen eta, bertan hainbat lan egin ondoren, 1972an zabaldu zuten berriro, ordura arte ezkerreko paretean zegoen 9aren atea kenduta. 1997an itxi egin zuten berriro eta, handik gutxira zabaldu eta gero, 2005ean berriro itxi zituen atea. Azkenik, 2007an Udalak hartu zuen instalazioaren jabetza eta gaur horrela dirau, pilotu profesionaleko programazioa Aspe enpresak bere gain hartuta.



Amaña

Legarreko frontoia egoitzaren ondoan dago eta 1984koa da.
Amañako frontoia herriko berrienetakoa da, 1992koa.



Legarre

Ipurua



Ipurua futbol-zelaia 1947ko da. Inaugurazio partiduan etxeko taldeak, SD Eibarrek, 0-2 galdu zuen Elgoibarrekin. Ordura arte, gainera, eibartarrek Elgoibarren jokatzen zituzten euren partiduak, eta ez ziren gutxi izaten taldeak zer emaitza egin zuen jakiteko Estaziñora gerturatzentz zirenak treneauan bueltatzen ziren ahotik berriak jasotzeko. 1951n egin zuten tribuna nagusia eta, handik urte batzueta, 1969an, estali egin zuten eta argiztapen-posteak ipini. Azken aldian guztiz berritu dute instalazioa: 2016an ekialdeko tribuna, 2019an mendebaldekoa eta hegoaldekoa, eta 2020an, azkenik, ekipamendua osatu dituzte. Aforoa 8.164 ikuslekoa da egun.

Anexoa 1974an egin zuten eta iaz, 2020an, berritu zuten guztiz.



Anexoa



Kiroldegia



Unbe



Orbea

Ipurua kiroldegia
1982an zabaldu zuten.
Eta handik hiru urteratik
1985ean, amaitu
zituzten 2. solairu eta
igerilekuak.
Instalazioen aforoa
3.000 lagunekoa da;
hori bai, pistako aforoa
partidu eta bestelako
ekitaldietan 5.250ekoa
da.

Unbe kiroldegia
1997koan da eta bertan
futbol-zelai artifizialak
daude, errugbia eta
atletismoa
praktikatzeko guneak
eta padel-pistekin
batera.

Orbea kiroldegia
2009koan da eta lehen
frontoia zegoen tokia
hartzera du. Waterpoloan
jokatzeko neurriak ditu
bertako igerilekuak.

Hilerria

Urkiko hilerria 1886. urtekoa da eta gaur egun 4.000 nitxo ditu eta 750 kolunbario. Hainbat iritzi izan dira urteetan lekuz aldatzea eskatzen zutenak, baina azken urteotako ehorzketa-ohituretan eman diren aldaketak lehentasuna kendu diote erabaki hartze horri.

Tanatorio-zerbitzua 2012an abiatu zen Otaola etorbidean, Funeuskadiren eskuistik.



Tanatorioa



Postetxea



Postetxea 1966tik dago Julian Etxeberria kalean, eraikina 1951koa bada ere. Horizan aurretik Correos Estaziñoko tren-geltokiaren aurrean zegoen, Valle taberna egon zen tokian, eta Telégrafos-eko ordezkaritza Calbeton kalean zegoen. Gaur egun Correosek 16 langile ditu plantillan.



ERREPUBLICA ALDARRIKATU ZENEKO JENDETZA ORDUKO BIDEBARRIETAKO KUARTELAREN AURREAN

Kuartela

Guardia Zibilaren kuartela 1955. urtearen inguruan egindakoa da. Aurretik Bidebarrieta kalean zuen egoitza, egun San Andres ikastetxea dagoen tokian. **Polizia Nazionalak** komisaldegia izan zuen 1960. hamarkadaren hasieratik San Agustin zeharkaldian, ondoren 1980. hamarkadarako Bittor Sarasketa kalera (gaur egungo Lanbideko lokaletara) pasatzeko eta, Ertzaintzaren zabalkundearekin, gure herritik alde egiteko. **Ertzaintza**, bestalde, 1987an desplegatu zen Eibarren.



Ertzaintza



Udaltzaingoa



Suhiltzaileak



Zabor-bilgunea

Eibarko Udaltzaingoak

44 udaltzain ditu gaur egun. Badira bi urte asko berritu zela, batzuei eretiratzeko ordua heldu zitzaielako; udaltzain kopurua jaitsi ere egin zen orduan, baina postuak betetzen joan dira gutxinaka.

Suhiltzaileen Arrateko parkea Azitaingo poligonoan eratu zuten 1996tik 1998ra.

26 suhiltzailek osatzen dute plantilla eta lau kamioi arin, salbamenduzko beste bat eta hiru remolke dituzte, bi autobonba eta autoeskala banarekin batera. Parke hori Elgoibarrera eramateko asmoa dago eta zonaldeko egoitza Bergaran kokatzekoa.

Zabor-bilgunea osatua Azitaingo poligonotik gertu dago eta 2013an zabaldu zuten.



Portalea



MUSEOA PORTALEA KULTUR-ETXEAN DAGO

Coliseo antzokia 1949an eraiki zuten eta 1987ra arte iraun zuen zabalik. Hogei urte itxitia egon eta gero, berriro hasi zen funtzionatzen 2007an.

Portalea kultura-etxea 1996an inauguratu zuten; handik 11 urtera, 2007an, **Museoa** zabaldu zuten eraikin berean. “Aguirre y Aranzabal” AYA 1940an sortutako enpresako eraikinean ezarri zuten kultura-etxea. Aurretik AYA handitu egin zuten 1960an eta enpresa 1985era arte egon zen martxan.

Arrate Kultur Elkartea 1952an sortu zuen Arrateko Gazteen Kongregazioak; sasoi batean oso erabilia izan zen Arrate izena, eta aurreko urteetako da J.D. Arrateren sorerra ere bai. 1962an hartu zituen Zuloagatarren kaleko lokalak.

Eibarko Klub Deportiboa 1924an sortu zuten; gertu du, beraz, mendeurrenna. Sorreran Zuloagatarren familiako Errebalgo “Sociedad y Fomento”-n izan zuen egoitza. Hurrengo urtean Isasi kaleko Elorza kafetegira aldatu zuten eta 1932an Calbeton kaleko Tupi tabernara. 1952an ezarri zuten bere egoitza gaur egungo Toribio Etxebarria kalean.



Coliseo



Kultu

Depor



Anbulatorioa Ospitalea



Eibarko Anbulatorioa
 1957an zabaldu zuten eta ordutik aurreko parkeak izan ditu hainbat aldaketa; esaterako, sasoi batean argiztatutako iturria izan zuen, ura gorantz botatzen zuena. Orain dela gutxi itxi duten **Torrekuako anbulatorioak**, bestalde, azken hamarkadan funtzionatu izan du, Amaña eta Ipurua aldeko jendea artatuz, Otaola etorbideko Ospitalea abian jarri arte. Gaitz kronikoak dituztenak hartzen dituen **Ospitalea**, bestalde, 2018an hasi zen funtzionatzen, eta pandemiaren sasoi honetan erreferentziakoz zentroa izan da eskualdean.

Pagei kaleko **Maternitatea** 1992ra arte egon zen martxan kale horretan; Mendaroko Ospitala egiterakoan amatasun-zerbitzu guztiak bertara pasatu ziren.



TORREKUA ANBULATORIOA



PAGEIKO MATERNITATEA



San Andres egoitza

Legarre 6an dagoen San Andres egoitza txikiena 1973koa da. Hurrengo urteetan hainbat lan egin ziren bertan: 1975ean parking-a, 1976an bigarren fasea, 1984an hirugarrena... eta 2005ean azken aldaketak jaso zituen. 120 egoiliarrendako plazak ditu.

Ego-Gain egoitza
Legarren 8an dago
eta 1975etik
1977ra iraun zuten
instalazioa
zabaltzeko lanek.
Hasieran San
Miguel
Patronatoak
gidatzen zuen
egoitza Foru
Aldundiaren
eskuetara pasatu
zen 1981ean.
Aurretik asilo-
ospitala egon zen
tokian egindako
egoitza handienak
170 egoiliar
hartzen ditu gaur
egun.

Egogain gerontologia zentroa



Jubilatuen Etxeak

Ipuruako Jubilatuen Etxea

1984koa da eta Egigurentarren kalean egoitza duen elkartea
500 bazkide ditu.

Urkiko Jubilatuen Etxea lau urte geroago sortu zuten, 1988an, eta 150 bazkide ditu.

Beheko Tokia 1995eko da eta, Karmeldarren parrokiaren aurrean izan zuten lokaletik, gaur egun Karmen kaleko parkean dutenetara pasatu ziren 1998an. Elkarreka 570 bazkide ditu orain.

Untzagako Jubilatuen Etxea

2000. urtekoa da eta bazkide gehien duena da Eibarren, 1.700 lagunekin.



UNTZAGAKO JUBILATUEN ETXEA



BEHEKO TOKIA



URKIKO JUBILATUEN ETXEA



Hotel Unzaga

Gaur egun Hotel Unzaga izena daraman eraikina **Arrate Hotela** izan zen sorreran. Ez zuen hasiera erraza izan, inauguratzeko gutxi falta zenean erori egin zelako, 1968an. Handik hiru urtera, 1971n, inauguratu zuten azkenik. Ibilbide luzea egin eta gero itxi egin zuten eta 2012an kudeatzaile berriek hartu zuten, izena ere aldatuta. Orain dela gutxi aldatu dute berriro jabez. 88 gela daude bertan, bederatzi solairutan banatuta. **Eibarrooms hotel berria** eta berezia dago aurrekoaren ondoan, bitartekaririk gabeko ostatu hartzeko leku apropoza gure herrian, Auto Check-In bidez funtzionatzen duena. 12 gela ditu.

eibarrooms





Sosola

Sosola agroturismoa 2002an zabaldu zuten, XVI. mendeko baserri dotorean, eta monumentu historiko izendatuta dago. Lau gela ditu, ostateu ezin bereziagoa eskaintzen dutenak. Nekazaritza ekologikoa lantzeaz gain, ogia eta gazta egiten dute bertan.

Ixua hotel-boutiqueak, bestalde, hainbat urtetan martxan egondako izen bereko jatetxearen lekukoa hartu zuen 2018. urtean. Zortzi gela ditu paraje bikainen dagoen ostateuak.



Ixua



La Salle



J.A. GISASOLA ESKOLA-TALDEA



Azitaingo La Salle
ikastetxean 1958an hasi
ziren eskolak ematen,
aspaldiko Unzueta
jauregiaren ondoan. Gaur
egun DBH eta Batxilergoa
eskaintzen dira bertan.
Isasiko La Salle ikastetxeak
1922an eman zituen bere
lehen urratsak, orduko
hartan Arrateko Orbangabea
Ikastetxearen izenarekin.
Jesus Bihotzearen Anaiek
(Corazonistek) ere klaseak
eman zituzten 1933tik
aurrera eraikin berrian.
Horrek paso eman zion Jose
Antonio Gisasola Eskola-
Taldeari 1956an. Gaur egun
HH eta LH eskaintzen dira
bertan.

Aldatze ikastetxean 1914an
hasi ziren eskolak ematen
eta mendeurrenara atzean
laga dute dagoeneko.
Eskaintza zabala dute
ikasleentzat: HH, LH, DBH
eta Batxilergoak.



Aldatze





Uni Eibar-Ermua

Uni Eibar-Ermua orain dela gutxi bete ditu 50 urteak, 1968an hasi baitziren klaseak ematen. Bertako instalazioetan 900 lagunentzako tokia dago ikasi eta bizi zeko ikasturte osoan. BHI ikasketak eskaintzen dituzte bertan, hainbat Ingeniaritza ikastarorekin batera.



Armeria Eskola



Armeria Eskola 1914ko ikasturtean hasi zen eskolak ematen, urtebete lehenago hainbat gai ematen hasi baziren ere. Gerra zibilaren ondorioz izandako kalteei aurre egiteko, 1950ean hainbat lan egin ziren bertan. Handik bi hamarkadatara eraikinaren aurrean hainbat lokal zabaldu zituzten, Tekniker, IMI eta halakoak kokatzeko. Gaur egun erdi eta goi mailako ikasketak eskaintzen ditu, langabetuentzat eta langileentzat eskainitakoez aparte.

Lantegi Eskola

Oinarritzko Lanide Heziketa Udal Institutua Lanbide Heziketa eskaintzen dute batez ere, hainbat ofizio ikasteko aukera emanet. Azitainen duten lokaletan Udal Hiltegia egon zen 1960. hamarkadaren amaiera iritsi arte.





Institutua

Ignazio Zuloaga

Institutua 1967an sortu zuten Jardiñeta kalean. BHI ikasketak eskaintzen dituzte bertan. Hor du tokia ere gaur egun Eibarko Hizkuntza Eskolak ere.

Mogel-Isasi ikastetxea sasoi batean Isasiko komentua izandako lurretan dago eraikita. Komentua 1971n kendu zuten eta lur horietan hainbat gela egin ziren aurretik. BHI ikasketak eskaintzen dituze.

Itzio ikastetxea 1974an eraiki zuten eta gaur egun LH 5-6 mailetako ikasleak hartzen ditu.

Alfa ikastetxea 1962koada, baina hutsik dago gaur egun.



Mogel-Isasi

ALFA IKASTETXEA



ITZIO IKASTETXEA





Amaña

San Andres



Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza ikasketak eskaintzen dituzten zentroak ditugu honako laurak. **San Andres** 1963koa da, **Amaña** 1969koa, **Urkizu** 1973koa eta **Urkiko Arrateko Andra Mari** ikastetxea 1984koa.

Urki



Urkizu



Iturburu

Iturburu ikastetxea 1978an eraiki zuten Arrate bidetik gora, 1960tik aurrera euskaraz eskainitako klaseak halanola hainbat tokitan eman eta gero, Zezenbide kaleko lokalak tarteko. Gaur egun LHko ikasketak eskaintzen dira bertan.

Txikienek Argatxan eta Sansaburun ematen dituzte lehenengoko urratsak. **Argatxako Eskolak** 1953an zabaldu zituzten; gero Federico Mayo izena hartu bazuen ere, gaur egun Argatxa moduan ezagutzen dugu. **Sansaburu ikastetxeak**, bestalde, 2003an egin zituen azken berrikuntzak.



SANSABURU



Bariantea

Eibarko bariantea hiru fasetan egin zen: lehenengoan, 1993an, Azitaindik Estaziñorainoko tramoa egin zen; bigarrenean, 1995ean, Legarrerekin lotu zuten; eta hirugarrenarekin, 2011n, amaitutzat eman zen.

Arrateko errepeidea 1924an amaitu zuten. 1914aren bueltan hasi ziren Eibar eta Aginaga lotzeko lanak, Munduko I. Gerra hasi eta langileria miseria gorrian zegoela Udalak eta Gipuzkoako Diputazioak egindako eskaerari erantzunez.

Arrateko errepeidea

EIBAR ETA AGINAGA LOTZEKO LANAK



Bilbo-Behobia

autobidearen Durango-Eibar tramoan 1972an abiatu zen, eta urtebete geroago, 1973an, Eibar eta Elgoibarren artekoan.

Txontako V-arena izan zen oihartzun handia izan zuen lanetako bat. 1972an eraiki zuten

75 metroko altuera zuen eraikuntza, Gines Apariciones sistemaz baliatuta. Lau metro altuerako eta 600 tona pisuko V formako pilastrak erabili zituzten Txonta parean sortutako arazoa konpontzeko.

Eibar-Gasteiz autobidea 2009an zabaldu zuten. Burgos-Maltzaga proiektuaren barruan kokatzen zen zati hori, eta 1984an Burgos eta Armiñon lotu zuen tartearen jarraipena izan zen.





Txaltxa-Zelai

Txaltxa-Zelai parking-a 2000. urtean egin zuten eta 150 autorendako aparkalekuak ditu.

Txomoko parking-a zortzi urte lehenago, 1992an, eraiki zuten eta 113 autorendako plazak ditu.

El Corte Inglés-eko aparkalekuak, bestalde, 800 plaza eskaintzen ditu.

Ego Gaineko autobus-geltokia 1999an eraiki zuten eta sei autobusendako tokia eskaintzen du. Herriko autobus-estazioarena eztabaидagai da azken urteotan alderdi politikoen artean.



Txomo



Ego Gain

Estazioa



Eibarko tren-estazioa 1887an inauguratu zuten Zaldibartik Elgoibarrera zihoan zerbitzuarekin. 1909an egin zioten gaur egun duen fatxada. 1941ean hirugarren trenbidea zabaldu zioten. 1980an merkantziak gordetzeko biltegia zena Donostiako Elizbarrutiaren esku laga zuten. Eta 2012an berritu zuten azken aldiz Estaziño kaleko tren-geltokia.



Ardantzako geltoki berria
2011koa da, urtebete geroago (2012an) **Azitaingoa** tokiz aldatu eta berritu zuten, eta **Amañakoa** 2015ekoa da. **Unibertsitatearen parekoa** paseoaren amaieran eraiki zuten 2014an.





SALON-TEATROA



Untzagako dorrea 1969an eraiki zuten. 19 solairuko bakarra da gure herrian eta 77 metroko altuera du. Aurretik Salón-Teatroa zegoen toki horretan eta, halako batean, su hartu eta betirako itxi behar izan zuten.

Untzagako dorrea

Urkizuko dorreak



Urkizuko dorreak (lau dira) 1968. eta 1973. urteen artean amaitu zituzten. Parkera ematen duten aurreko biak 11 solairukoak dira eta atzeko beste biak 15ekoak. Orbea enpresakoen lurretan egin ziren dorre horiek, bizikleta-egileak Mallabiaira joan ondoren. Eurek zuten frontoiari eustea izan zen baldintzetako bat eta urte askoan hor izan zen, kiroldegia egin zuten arte.

ORBEATARREN KAPERA





Amañako dorreak



Amañako dorreak (sei dira) 1968. eta 1971. urteen artean amaitu zituzten. Seirak dira 15 solairukoak. **Legarreko dorrea** pixka bat lehenago amaitu zuten, 1968. urtean. 15 solairu ditu eta azken aldian berritu dute.



Legarreko dorrea



Ipuruako dorreak

Ipurua zelai aurreko dorre biak, Indalecio Ojanguren kalekoak, 1973. urtekoak dira. Horiek ere 15 solairukoak egin zituzten. **Romualdo Galdos kaleko dorreak** (lau dira) zaharragoak dira, 1958. urtekoak. Guztiak dira 12 solairukoak.



R. Galdoseko dorreak



Azitaingo Industrialdea



TEKNIKER



Azitain Industrialdea 1998tik 2005era arteko tartean eraiki zuten. **Erisono Industrialdea**, bestalde, 2007an hasi bazuten ere 2018an egin zituzten azken lanak bertan. Ingurune horretan dagoen **Tekniker** teknologia-zentroa 2013an ezarri zen hor. Aurretik, 1981ean sortu zuten zentroa Armeria Eskolan, eta 1990ean Otaola etorbidera aldatu zuten, eta handik Azitainera. **Matsariako Industrialdea**, bestalde, 2011tik dago eginda.

Matsariako Industrialdea

El Corte Inglés eraikina 2009an inauguratu zuten, hau da, orain dela hamarkada bat pasata. Bertako aforoa 4.825 lagunekoa da.

Amañako paseoaren azken zatia 2004an amaitu zuten, **Ardantzako** trenbidearen gaineko paseoa 2010ean zabaldu zuten eta, azkenik, **Berdintasun pasealekua**, bien arteko zatia lotzen duena, 2016an.



El Corte Inglés

ARDANTZA ESTAZIÑO GAINEKOA



AMAÑAKO PASEOA



Paseoan

BERDINTASUNAREN PASEALEKUA





Aixolako urtegia

Aixolako urtegia 1981ean inauguru zuten. Handik zortzi urtera, 1989an, hustu egin zuten -garbitzeko asmoz- eta jarraian izandako lehortea ur-zerbitzuen mozketak ekarri zituen. 2008an **Urkuluko urtegitik** hasi ginen hornitzen: Eibartarren bi herenek bertatik jasotzen dute ura eta Amaña eta Ipurua hornitzen dira bakarrik Aixolatik. 2019an zebra-muskuilua azaldu zen Aixolan eta arrantzan egitea debekatu zuten. 2'7 milioi litroko edukiera du Aixolak; Aretxabaletan dagoen Urkuluk 10 milioikoa, ia bost aldiz gurearena. Urkulurekin lotu aurretik, eibartarrok %70ean hornitzen ginen Aixolatik eta %30ean Soraluzeko Sagar-Errekatik.



URKULU URTEGIA ARETXABALETAN




Eskerrik asko argitalpen honetan agertzen diren datuak biltzen lagundu daiguzuen guztiei, batez ere Udal Artxibotik eta Obrak eta Hirigintza Sailetatik eskainitako laguntasunagatik. Marrazkiak, bestalde, Yulen Zabaletarenak eta Joxe Kareagarenak dira.

Ignacio Zuloaga eta bere lana ezagutzeko urtea

2020. urtea agurtu baino lehen, azarotik abendura bitartean Zuloagaren jaiotzaren 150. urteurrena (1870-2020) Eibarren gogoratzeko hainbat ekimen egon dira martxan, Eibarko Udalak, Ego Ibarra batzordearen bitartez antolatuta. Hasteko, San Andres egunean ipini zuten ikusgai San Andres parrokian “Arrateko itsua”, jendaurrean aurretik sekula erakutsi bariko koadroa eta hori ikustera joateko bisita gidatuak eskaini zituzten. Horrekin batera, “Zuloaga barne-barnetik” izenburupean, lau dokumental egin eta sarean ipini dituzte.

Eta margolariaren lana hedatzeko ez ezik, tokiko merkataritzaren alde egiteko, Zuloagaren **27 margolan ipini zituzten ikusgai** herriko beste horrenbeste arropadendatan eta horren inguruko lehiaketa ere egin zen. Eibarko erakusleihotan erakutsi diren margolanen kopiak zortzi museo edo erakunde hauetatik etorri dira: Fundación Zuloaga (Zumaia), Museo Nacional de Arte Reina Sofía, Museo Ignacio Zuloaga (Pedraza), Universidad Complutense de Madrid, Museo Carmen Thyssen Málaga, Bilboko Arte Ederretako Museoa, Real Academia de Bellas Artes de San Fernando eta Museu Nacional d'Art de Catalunya.

Autorretrato



Zuloaga, VEGAP, Eibar, 2020. Fundación Zuloaga, Zumárra.

1942

Mihise gaineko olio-pintura

84 x 64 zm

Retrato de Valentine Dethomas

Zuloaga, VEGAP, Eibar, 2020. Bilboko Arte Ederren Museoa.



1895

Mihise gaineko olio-pintura
200 × 120 zm

Viejas casas de Segovia

Zuloaga, VEGAP, Eibar, 2020. Museo Nacional de Arte Reina Sofía.



1917 (Segovia)

Mihise gaineko olio-pintura
107 × 120 zm



Zuloaga, VEGAP, Eibar, 2020. Museo Carmen Thyssen, Málaga.

Corrida de toros en Unzaga

1899

Mihise gaineko olio-pintura
150 x 200 zm



Zuloaga, VEGAP, Eibar, 2020. Museo Nacional de Arte Reina Sofía.

Don Plácido Zuloaga en su taller

1895 (Eibar)
Mihise gaineko olio-pintura
219 x 100 zm



Autorretrato de Ignacio Zuloaga de cazador

1897

El Cristo de la sangre

1911 (Segovia)
Mihise gaineko olio-pintura
248 x 302 zm





1910 (París)
Mihise gaineko olio-pintura
184 x 111 zm

El violinista de Larrapidi

Zuloaga, VEGAP, Eibar, 2020. Museo Nacional de Arte Reina Sofía.

Retrato de la condesa Mathie de Noailles



1913
Mihise gaineko
olio-pintura
152 x 195,5 zm

Zuloaga, VEGAP, Eibar, 2020. Bilboko Arte Ederren Museoa.

1944-45
65 x 80 zm



Zuloaga, VEGAP, Eibar, 2020. Fundación Zuloaga. Zumaiako udalatua.

Las peras de Don Guindo



Zuloaga, VEGAP, Eibar, 2020. Museo Nacional de Arte Reina Sofía.

La bailarina

1912 (Paris)
Mihise gaineko olio-pintura
196 x 117 zm



Retrato de madame Malinowska (la rusa)

EGAP, Eibar, 2020. Museo Nacional de Arte Reina Sofía.

1912 (Paris)
Mihise gaineko olio-pintura
197 x 98 zm

Vista de Toledo



ca. 1911-1920
Mihise gaineko
olio-pintura
91 x 120 zm

Zuloaga, VEGAP, Eibar, 2020. Real Academia Bellas Artes San Fernando.

Mademoiselle Souty à la garçon

Zuloaga, VEGAP, Eibar, 2020. Fundación Zuloaga. Zumaiako.



1915

Mihise gaineko olio-pintura
190 x 120 zm.

Paisaje de la Rioja

Zuloaga, VEGAP, Eibar, 2020. Bilboko Arte Ederren Museoa.



c. 1935

Kartoia gaineko
olio-pintura
75,6 x 98 zm



Zuloaga, VEGAP, Eibar, 2020. Museu Nacional d'Art de Catalunya.

Mis primas

1903

Mihise gaineko olio-pintura
208 x 250 zm



Zuloaga, VEGAP, Eibar, 2020. Bilboko Arte Ederren Museoa.

Doña Adela Quintana Moreno

1910

Mihise gaineko olio-pintura
202 x 161 zm

Fuente de Eibar



Zuloaga, VEGAP, Eibar, 2020. Museo Ignacio Zuloaga, Pediáza.

1888.

Mihise gaineko olio-pintura
96,5 x 62,8 zm



Zuloaga, VEGAP, Eibar, 2020. Museo Nacional de Arte Reina Sofía.

Lolita Muth Ben Maacha

1920-1925 (ca.)


Mihise gaineko olio-pintura
75 x 56 zm

La dama de la sombrilla



Zuloaga, VEGAP, Eibar, 2020. Bilboko Arte Ederren Museoa.

Monje dominico




Zuloaga, VEGAP, Eibar, 2020. Fundación Zuloaga, Zumára.

c. 1895-1897
Mihise gaineko
olio-pintura
97,5 x 65,5 zm

1937

Cabeza de Lola




Zuloaga, VEGAP, Eibar, 2020. Museo Nacional de Arte Reina Sofía.

1915 (Zumaia)

Mihise gaineko olio-pintura

84,5 x 62 zm



Zuloaga, VEGAP, Eibar, 2020. Bilboko Arte Ederren Museoa.


Retrato del conde de Campo Alegre

c. 1892

Mihise gaineko olio-pintura

91,5 x 60,5 zm

La Oterito




Zuloaga, VEGAP, Eibar, 2020. Fundación Zuloaga. Zumaiako.

1936 (Paris)
Mihise gaineko olio-pintura

Retrato de Ortega y Gasset

1920
Mihise gaineko olio-pintura
167 x 128 zm



Zuloaga, VEGAP, Eibar, 2020. Universidad Complutense Madrid.


Zuloaga, VEGAP, Eibar, 2020. Fundación Zuloaga. Zumaiá.



El niño Ramón Suárez Zuloaga (mi nieto Ramón)

Don Pablo Uranga pintando

1931
Mihise gaineko olio-pintura
106 x 90,5 zm



Zuloaga, VEGAP, Eibar, 2020. Museo Nacional de Arte Reina Sofía.

2021eko GIDA

Eibarko enpresa,
zerbitzu, komertzio,
tabernak...

**aurkibidea
gremioka**

Abokatuak.....	74
Bitartekaritza familiarra.....	74
Aholkularitza	75-76
Enpresen aholkularitza	76
Aisialdia.....	76
Akademiak.....	78-79
Hizkuntza akademiak.....	78-79
Musika akademiak	79
Sormen akademiak	79
Albaitariak	79
Alderdi politikoak	79
Altzariak	80
Animaliak.....	80
Antenak	80
Ardoak	80
Argazkidendak.....	80
Argazkilariak.....	80
Arkitektoak	80- 81
Arkitekto teknikoak.....	81
Armak	81
Eskopetak.....	81
Aroztegiak.....	81
Arraindegiak.....	81
Aseguruak.....	82
Autoak	82-83
Autoendako ordezko piezak	82
Banatzaile ofizialak	82
Gurpilak	82
Konponketak	83
Autobusak.....	83
Autoeskolak	83
Autokarabanak	83
Bankoak	83
Bazzarak.....	84
Belardendak	84
Bidaiaik.....	84
Bitxitegiak	84
Bizikletak	84
Bulego materiala	85
Concept Store	85
Coworking.....	85
Croissanteria	85
Degustazioa	85
Dekorazioa.....	86
Armairu enpotratuak.....	86
Diseinu grafikoa.....	86
Distribuzioa	87
Soldadurarako gasak eta materialak..	87
Edariak	87
Egurra	87
Barnizatuak.....	87
Eibarren Akebai	87
Elektrizitatea	87-88
Elektrodomestikoak.....	88
Elektroerreparazioa	88
Elkarteaik.....	89
Enbalajeak	89
Entzumen zentroak	89

Eraikuntza.....	90	Ikusentzunezko zerbitzuak	106
Erreformak.....	90-91	Ileapaindegiak.....	106
Errehabilitazioa	92-93	Gizonezkoendakoak	106
Erremintak.....	92	Produktuak.....	106
Eusteko tresnak.....	92	Txakurrentako ileapaindegia.....	106
Errotulazioa	92	Industria.....	106-107
Laser markajea.....	92	Besteren prebentzio zerbitzua	106
Eskulanak	94	Ingeniaritza.....	106
Estankoak	94	Makinak	106
Estanpazioa	94	Metalezko eskubilak.....	106
Estetika.....	94	Informatika	108
Etxez-etxeiko laguntza	94	Erreziklajea	108
Farmaziak	94	Inmobiliariak.....	108-109
Parafarmaziak.....	94	Inpermeabilizazioa	109
Fatxadak	94	Inprenta.....	109
Ferreteriak.....	95	Inpresio sistemak.....	109
Fotokopiadendak	95	Isolamenduak	109
Frutadendak.....	95	Iturginak.....	109
Funerariak	95	Izozkiak	110
Hilerri lanak	95	Janaridendak	110
Garabiak	96	Supermerkatuak	110
Garbiketak	96	Jantzidendak.....	110-111
Garraioak.....	96	Erropa konponketa	110
Gasolindegia.....	96	Jantzi tradizionalak	110
Gestoriak	96	Jostundegiak	111
Giltzak.....	96	Lanerako jantziak	111
Gimnasioak.....	97	Talla handiak	111
Gizarte zerbitzuak.....	97	Umeendako jantziak	111
Gozokiak.....	97	Jatetxeak	111-112
Gozotegiak.....	97	Jostailudendak	112
Grow shop.....	98	Kirolak	112
Harategiak	98	Kirol apustuak	112
Hezkuntza	99-103	Pilota	112
Euskaltegiak	99	Kirolidendak	112
Ikastetxeak	100-103	Koltxoindendak	112
Enpresa hezkuntza	102	Komunikabideak	112
Hornidura industrialak	102-104	Komunikazioa	112
Hotelak	104	Komunitateak	113
Nekazal turismoa	104	Konplementoak	113
Igeltseroak.....	104	Umeendako konplementoak	113
Igogailuak.....	104-105	Kortinak	113

Kristaldegiak.....	113
Kromatuak	113
Lana.....	113
Aldi baterako lan enpresak	113
Leihoak	114
Lentzeria.....	115
Liburudendak.....	115
Lokutorioak.....	115
Loradendak.....	115
Loteria	115
Ludoteka	115
Makina saltzaileak	115
Masajeak.....	116
Medikuntza eta Osasuna.....	116-120
Akupuntura	116
Dentistak.....	116-119
(ortodontzia funtzionala)	118
Dietetika eta nutrizioa.....	118
Errekonozimendua.....	118
Fisioterapia	118
Homeopatia.....	118
Homeopatia-mesoterapia.....	118
Logopedak.....	118
Medikuntza naturala	118
Naturopatia	118
Oftalmologoak.....	118
Osteopatia.....	118
Podologoak	118
(Podoposturologia)	118
Psikologia	120
(Bikoteen bitartekaritza).....	120
(Psikoterapeuta)	120
Radiologia.....	120
Reflexología	120
Sexología	120
Terapia bisuala.....	120
Tokoginekología	120
Traumatología eta ortopedia.....	120
Urologia	120
Zoru pelb. errehab.....	120
Mekaniketarako tresnak	120
Mekanizatuak	121
Menajea	121
Mertzeriak	121
Motorrak	121
Muelleak	121
Musika tresnak	121
Mutuak.....	121
NeumatiKA	121
Nutrizio eskola.....	121
Oinetakoak	121
Konponketak	121
OkindegiaK	122
Opariak.....	122
Optikak	122
Ortopedia.....	122
Ostalaritzia	122
Parking-ak.....	123
Perfumeriak	123
Pertsianak.....	123
Pinturak	123
Pizzeriak	123
Plastikoak	123
Prentsa eta aldizkariak	123
Publizitatea	124
Reiki.....	124
Sarrailagintza	124
Segurtasuna.....	124
Sindikatuak.....	124
SukaldeaK	124
Tabernak	125-127
Tanatorioak	127
Tapizariak	127
Tatuajeak eta piercing	127
Tindategiak.....	127
Garbiketa autozerbitzua.....	127
ToldoaK	127
Yoga	128
Webguneak	128
Aurkibidea orrika.....	70-73
Egutegia.....	129

aurkibidea

orrika

...ETA KITTO!	79, 89, 112	ANDER ARROITA/AUREG	121	AUKERA	108	BOSARK	80
+QWAPOS	106	ANDIA	98	AUTODISCO	82	BOSSA	126
2D	106	ANDONI GISASOLA	79	AUTORECAMBIOS UMBE	82	BOSTON	106
3 U ASESORES	75	ANE CAMPOS	118	AUTO-REP. AURRERA	83	BOULEVARD	126
3. ADMINISTRAZIOA	115	ANE MENDIA	118	AYA-AGUILAR Y ARANZABAL	81	BURBUJAS Y MAS	113, 123
4. ADMINISTRAZIOA	115	ANSA	84	AYC AUTOMATISMOS	124	C&J CERRAJEROS	124
A. KEIN GROUP	75	ANTXON	97	AZCUE, HNAS.	94	CAMILO ALVAREZ	90, 104
ABBIE WHITE	79	ANUKESTUDIO	86, 124	AZKENA	125	CANON	85
ACITAIN S.A.	96	APAINDU	106	AZKOAGA HNOS.	94	CAPI	94, 123
ACHA	113	ARA TATTOO	127	AZPIRI	111	CARACIL SEGUROS	82
ADATS	106	ARANCETA AZPITARTE	75	B THE TRAVEL BRAND-BARCELÓ	84	CARE	89
ADITZE	74, 120	ARANTZA ALVAREZ	120	BACO LEKU EGO GAIN	80	CARITAS	89
ADOLFO JAINAGA	79	ARAT HORTZ KLINIKA	116	BACO LEKU URKIZU	80	CARLOS ESTANKOA	94
AECC	89	ARBI	112	BADAS	116	CARROCERIAS ARANE	83
AEK	99	ARKIGREEN	80	BAGLIETTO	86, 123	CARROCERIAS MAK	83
AFESD	89	ARKUPE	125	BAISI	125	CARROCERIAS ROJO	83
AGIFES	89	ARLA	86	BALATZ	80	CARTONAJES EIBAR	89
AGME AUTOMATED ASSEMBLY		ARMAGILE ELKARTEA	89	BALKOI	125	CASA GALICIA	111
SOLUTIONS	106	ARMERIA ESKOLA	100	BAMBI	121	CASAMANIA	86
AGUIÑASPI	125	ARMERIAKO IKASLE OHIAK	89	BANKOA	84	CASARSISTEMAS	108
AHOTS LAN	118, 120	ARNASTU	94	BAR JARDINES	125	CASINO ARTISTA EIBARRES	126
AIZPIRI, C.B.	110	ARRATE AUTOESCOLA	83	BAR URKIZU	126	CASTAÑO FARMAZIA	94
AJA ABOGADOS	74	ARRATE GARITAONANDIA	120	BARANDELA, CELIA	94	CATALANA OCCIDENTE	82
AJT ZIHURTASUNA, SL	106	ARRATE IRRATIA	112	BARATZE GOURMET	126	CDR BIZIKLETAK	84
AKHARA	125	ARRATE KULTUR ELKARTEA	89	BARBERIA OSKAR	106	CEDRY MODA	110
AKONDIA	79	ARRATEKO ANDRA MARI	100	BARRUTIA-MAJID	98	CENFORPRE	106
ALAI ESTETIKA	94	ARREGI	108	BATZOKIA	111	CENTRO HENAI	116, 124
ALBERT	125	ARREGI-DOMINGUEZ	81	BEEP EIBAR	108	CENTRO MEDICO ABONTZA	116
ALBERTO BITXIDENDA	84	ARRIAGA, S.L.	109	BEGOÑA IZAGIRRE	116	CIMER SL	121
ALBERTO TABERNA	125	ARRIOLA	123	BEHEKO TOKIA	89	CIOKA CREATIVA	86, 124, 128
ALBIZU	98	ARTAMENDI	98	BEITTU	89, 122	CLARI LAGO	110
ALDATZE (PROBID.)	100	ARTOLA	111	BELTRAN	104	CLOSET	110
ALFONSO GOYA	121	ASCASIBAR-INTERSPORT	112	BENICOBIA	88	COLONIALES ANSELMO GLEZ.	80
ALKOHOLIKO ANONIMOAK	89	AS-MU	90, 104	BERBA	118	COMERCIAL ZABALA	122
ALME CALEFACCION	88	ASOCIACION ARMERA	81	BERRIKUNTZAK	90	CONDAL	127
ALTAIR	106	ASOLA BERRI HIRU TXIRLO	89	BERTAKO	98	CORRAL	110
ALLIANZ-JON ETXABE	82	ASPACE	89	BIC GIPUZKOA BERRILAN	76	CORTINAS Y PERSIANAS EIBAR	113
AMAÑA HERRI IKASTETXEA	100	ASPE	112	BIDE	118	COSTAMAR	82
